



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Altzairuzko oihala eta gerriko berdea

**E**uropa 1989ko uda. Altzairuzko Oihala, kontinentea goitik behera zeharkatzen zuen milaka kilometroko hesia, Varsoviako Itunpeko ekialdea eta NATOren eraginpeko mendebaldea zatitzen zituena muga, urratzen hasi zen. Abuztuaren 19an Gyula Horn hungariar oposizioko kideak, austriar gobernuaren babesarekin, "piknik paneuroparra" antolatu zuen Austria eta Hungariaren arteko muga. Milaka pertsonak zeharkatu zuten muga egun hartan eta, jendetza ikusita, Hungariako armadak esku hartzea arriskutsua zela erabaki zuen. Biharamunean berriro itxi zuten muga. Baina irailaren 11n behin betiko irekiko zuten bi herrialdeen arteko muga zatia. Eta azaroan, Berlingo Harresia bota zutenean, gertatu zen sinbolikoki Altzairuzko Oihalaren amaiera. Polonia izan zen gobernu sozialista kentzen lehena. Besteak atzetik etorri ziren.

Lau hamarkadatan hesia oztopo izan zen gizakientzat. Beste espezie askorentzat, ordea, askatasun eremua izan zen. Heriotzarekin lotu ohi da bi blokeen arteko muga -Berlingo zatian "soilik" 125-200 pertsona hil zituzten tiroz harresia zeharkatzeko ahaleginean-, baina lur-zerrenda luzean bizitzak eztanda egin zuen. Nekazaritza, eraikuntza edo bestelako giza jarduerarik gabe, tokian tokiko ohiko landare eta animalia espezieak asko



ALTZAIRUZKO OIHALAREN ZATI BAT ORDUKO TXEKOSLOVAKIA ETA AUSTRIAREN ARTEAN.

ugaltu ziren alanbre arantzadunen eta zaintza dorreen inguruan. Eta lehenago oso urriak ziren 600 espezie inguruk ere eremua hartu zuten: igarabak, zikoina beltzak, perla muskuiluak, *Arvalis* igelak, pitxartxar nabarrak, artzandobiak, *Paphiopedilum* orkideak... geroz eta mizago agertzen hasi ziren, gizakientzat debekatuta zegoen paradisu berde estuan.

70eko hamarkadan, lehen sateliteko irudietan Finlandia eta SESBen arteko muga militarizatua baso mardulek estaltzen zutela ikusten zuten. Eta Alemania zatitzen zuen muga ikerketa ornitologikoa egin zuten: biodibertsitatea oso handia zela ondorioztatu zuten. Oihala erori

ondoren, pixkanaka eremua babesteko ekimen puntualak martxan jartzen hasi ziren han eta hemen.

Altzairuzko Oihal ohia 12.500 km luze da eta 24 estatu eta 8 eskualde biogeografiko zeharkatzen ditu Laponiatik Balkanetaraino. Duela 15 bat urte Europako Gerriko Berdea ekimena sortu zen, geroago, *EuroVelo13* izenekoa eta beste batzuk. Guztiek eremu naturala babestea dute helburu, baina gizakiek ere probetxua ateratzeko moduan -bizikletentzako ibilbideak egokitzuz, adibidez-. Ikusteko dago bi helburuak bateragarriak diren ala ezusteko altxorra benetan babesten jarraitzeko modu bakarra debekua eta alanbre arantzaduna diren. ●



## Baionako juduen hilerriak 330 urte

XVII. mendean Inkisizioak juduak Iberiar penintsulatik bota zituenean, horietako zenbait Baionan errefuxiatu ziren. Baionako harresien barruan bizitzea debekatua zutenez, Santispiritu auzoan kokatu ziren. Eta 1689an hilerria ireki zuten. Egun hilerriak 2 hektarea eta ia 4.000 hilobi ditu; Europako bigarren handiena, Amsterdamekoaren ondoren. Hilobi zaharrenak guztiak tamaina berekoak

dira eta inskripzioak gaztelaniaz. XIX. mendean aberatsenak hilobi handiagoak egiten hasi ziren eta bi zatien arteko aldea nabarmen ikusten da. Gainera orduan, Frantziako Iraultzatik aurrera, hasi ziren inskripzioak frantsesez egiten. Bidaxunen eta Bastidan ere badira juduen hilerriak, baina itxita daude; Baionakoa da inguruan irekita dagoen bakarra, oraindik ere juduak bertan ehorzten diren bakarra. ●